

# txintxarri



## Harrera beroa txapeldunari

Jendetza elkartu da Realaren titulua ospatzera, eta Iraia Iparragirre omentzera. / 8-9

TXINTXARRI

## Bozkatzeko ordua

Kanpainako azken astean sartu dira politikariak, ahalik eta herritar gehien erakartzeko / 2

**Hainbat diziplina  
uztatu dituzte  
Udaberriko bertso  
saioan; kultur etxea  
bete du ekitaldiak / 4**

**Trinko taldeko  
Leonardo Juarezek  
lehenengo distantzia  
luzeko triatloia osatu  
du, Katalunian / 10**



EAJ-PNV.EUS  
f t i  
**JON ANTXORDOKI REKONDO**  
LASARTE-ORIAko ALKATETZARAKO HAUTAGAIA

# LASARTE-ORIA BAT EGINIK



**MARKEL OLANO ARRESE**  
GIPUZKOAKo DIPUTATU NAGUSIRAKO HAUTAGAIA



**EMAN BOTOA**

# EH Bildu "irabaztera eta gobernatzera" dator

Hauteskunde kanpainako ekitaldia egin duen alderdi bakarra da EH Bildu. Joan den astean Lasarte-Oriako alkategai Jon Martinek, Gipuzkoako ahaldungai Juan Karlos Izagirrek eta Maddalen Iriarte legebiltzarkideak programaren oinarriak aurkeztu zituzten

## Txintxarri

"Ongi prestatu dugu maiatzaren 26ko partida; irabaztera goaz". Lasarte-Oriako alkategai Jon Martinen hitzak dira. EH Bilduk ekitaldia egin zuen joan den astean Okendo plazan, udal, foru eta Europako bozetako programen berri emateko. Hautagaiak alboan izan zituen Juan Karlos Izagirre Gipuzkoako ahaldungai eta Maddalen Iriarte legebiltzarkidea. Herritar ugari gerturatu zen alderdi abertzalearen proposamenak entzuzera.

Apirilaren 28ko hauteskunde orokorretako emaitza onek hauspotuta, "irabaztera eta Gipuzkoa gobernatzera" datorren "olatua" da EH Bildu, hizlarien arabera. Lasarteoriatarren bozkak eskatu zituzten hiruek: "Hautagai onenak ditugu; denak dira garrantzitsu, aurreneko lerroan daudenak eta baita azkenekoan daudenak ere".

Martinen hitzetan, herriaren etorkizuna "jokoan" dago, eta lasarteoriatarrek "bi kudeaketa eredu" dituzte aukeratzeko. Batetik, PSE-EEk eta EAJk azken legegaldian aurrera eramandakoa: "Nahi dute Lasarte-Oria izatea Donostiaren aldira bat, bertan tokirik ez duten proiektuak hona ekarri: erraustegia, makrokartzela... Negozioa jartzen



Herritar ugari batu zen EH Bilduren ekitaldira. TXINTXARRI

dute pertsonen gaintik". Bestetik, hori erabat irauli nahi duen EH Bildurena. "Pertsonak erdigunean jarriko dituen proiektua egin dugu: parekidetasuna eta parte-hartzea sustatuko dituen, aniztasuna ikusaraziko duena, euskara bultzatuko duena eta herria alkate egingo duena".

## Zerga sistema aldatu

Izagirrek, berriz, politika sozialak izan zituen ardatz bere hitzaldian. Erraustegia beharrezkoa ez dela adierazi zuen, eta feminismoaren

garrantzia goraipatu. Argi du EH Bildu Gipuzkoa gobernatzera iritsi daitekeela: "Irabazteko egindako proiektua da gurea". Jarraian, Iriartek itxi zuen hitzaldi sorta. Genero berdintasuna eta Euskal Herriaren independentzia izan zituen hizpide. Halaber, zerga bilketa sistema aldatu egin behar dela nabarmendu zuen: "Iazko eta aurtengo errekaudazio kopuruak antzekoak dira; baina ez gehien daukatenei gehiago kentzen zaielako, langileei gehiago kentzen zaielako baizik".

## Ares eta Oleden, herritarrekin

Elkarrekin-Podemoseko zerrenda kideetako batzuk, David Ares, Tania Rodriguez eta Miguel Angel Tolosa, alderdiaren proposamenei buruzko eskuorriak eta bozak banatzen aritu ziren astearte arratsaldean Okendon. Hainbat herritarrek babesa adierazi edo galderak egiteko baliatu zuten aukera, baita Donostialdeko hautagai David Oledeni ere.



TXINTXARRI



LASARTE-ORIAKO PP

## Kartelak jarri ditu Saenzek

Kanpaina hasiera sinbolikoa izan ohi da kartelak jartzea. Ohi baino geroago egin du Alejandro Saenzek, joan den igandera arte ez baitzuten itsatsi. PPko alkategaiak ez du botoa eskatzeko beste ekintzarik egin herrian, ahaldungai Juan Carlos Canorekin baitabil herriz herri kanpainan.



LASARTE-ORIAKO EAJ

## Lehen sektoreari babesa

EAJk 0 Km-ko produktuak sustatzeko ekimenak bultzatzea eta lehen sektorearen alde egitea jasoa du bere programan. Horregatik, Lasarte-Oriako alkategai Jon Antxordokik herriko baserrietara bisita egin zuen asteartean. "Sustraietara" itzulitza, "gure muin diren" ganaduzaleei eta nekazarie babesa adierazi zien hautagaiak.



TXINTXARRI

## Arrosa banaketa azokan

Azoka eguna baliatu dute hautagaiak botoa eskatzeko. Hala egin zuen Jesus Zaballos alkateak PSE-EEko Europarako hautagai Eider Gardiazabal eta Batzar Nagusietarako zerendakide Arritxu Maraion lagun zituela.

# Euskaraldiko korapiloak eta ikasbideak Udaltopen

Udaletako euskara teknikarien bilkura egin dute beste behin Manuel Lekuona kultur etxean. Aurten erakunde eta elkarten arteko elkarlana eta gobernantza eredu berriak aztertu dituzte. Euskaraldiak ere izan du bere tarte

## Txintxarri

Euskara politikaren ildoak zehaztu dituzte Lasarte-Orian. Udaltop, Udaletako Euskara Zerbitzuen Topaketa egin dute, *Elkar ulertzetik elkarrekin lan egitera... Ados?* izenburupean. Euskal Herriko 220 bat euskara teknikari, arduradun politiko, irakasle, hizlari eta beste hainbat esparrutako langile bildu ziren lehengo astean Manuel Lekuona kultur etxean. Jardunaldiaren elkarlan eta gobernantza eredu berriak oinarri dituzten hamaika hitzaldi eta tailer izan ziren.

Ostiralean, Euskaraldia izan zen gai garrantzitsuenetako bat. Estitxu Alkorta HPSko Euskara Sustatzeko zuzendaria eta Jasone Mendizabal Topaguneko zuzendaria guztien aurrean biluztu ziren, *Euskaraldiko lankidetzaren esperientzia txarretatik ere ikas genezake?* hitzaldian.

Topagunea eta Hizkuntza Politika Sailburutza. Euskaraldia gizarte eragile eta erakunde publiko baten elkarlanari esker eraman zen aurrera. Izaera eta kultura ezberdinak izaki, bi erakundeek hainbat oztipo aurkitu zituzten ideari forma eman eta martxan jartzerakoan. Baina erakundeek argi zeukaten elkarlanari esker bakarrik lortuko



Mendizabal eta Alkorta, joan den asteko hitzaldian. TXINTXARRI

zela proiektua. "Ekimen hau, egitasmo hau, ezin genuen bakarrik egin, elkarrekin egitea beharrezkoa zen," adierazi du Mendizabalek.

## Marko teorikoa

Oinarri bezala marko teoriko bat zehaztu zuten; hiru zutabe izango ziren nagusi: lidergo partekatua, elkarren aitortza eta funtzio banaketa. Baina praktikan jartzerakoan zailtasun ugari izan zituzten. Lidergo partekatua eta funtzio banaketa, marka txuri bat bilatu beharra, herrialdeetara zabaltzean udal eta kultur elkarte edo eragileen arteko gaztazkak,

hala nola, bestearen aitortzarik eza edo baliabide arazoak, eta Euskaraldiko rol jokoan inkoherentziak eta epaiak azaldu zituzten.

Hala eta guztiz ere, estutasun horiek guztiek hurrengo edizioetarako ikasbideak eman dituztela jakitera eman zuten. Lankidetzaren eta elkar aitortza erdian jartzea ezinbestekoa izan dela aitortu dute, baita desadostasunak egotean horiek mahaia gainean jarri eta zuzen eta zintzo jokatzeko erabakiorra izan dela ere. Horretarako, pertsonen jarrera ezinbestekoa dela azpimarratu zuten.



NEURE KABUZ

JEXUX ARTETXE

## Hauteskunde libreenak

Datorren igandean, lurraldeko eta tokiko hauteskundeak. Beste mailetakoak ez bezala, lau urtetik behingo aldizkakotasun zehatzarekin datoz. Denbora tarte nahikoa, aurreko erakundearen gobernua arduratzeko hautatuak izan direnen erabakien emaitzak ikusi ahal izateko. Hautesle bakoitzari dagokio noski, herriarentzat onuragarri edo kaltegarri izan diren modu libreen epaitzea. Gauzak bere onetik joan direla edo aukera hobegorik ez dagoela irizten duenak, egoerak bere horretan jarraitzea nahiko du. Aldiz, korporazioaren jarduketa bide okerretik eraman dela uste duenak, norabidez aldatzeko gauza dela ikusten duenari emango dio botoa.

Egia esan, ez naiz ezer berririk esaten ari. Hori guztia gauza jakina da, edonorentzat bistakoa dena eta normala izan behar duena. Hortxe dago gakoa. Normala izan behar zuena, guztiz anormala izan dela orain arte. Urte askotan, larderia eta mehatxuaren itzalpean aritu izan direlako zenbait talde politikotako hautagaiak. Giza bizitzari eraso egitea onargarria zelako gure arteko batzuentzat.

Kultura hori defendatu dutenen azken arrastoa desagertuta, indarkeria helburu zuen azken erakunde desagendua, egiten diren lehenengo udal eta foru hauteskunde demokratikoak dira igandekoak. Herri-asmu ezberdinen arteko lehia garbiaren arabera ebartziko direnak. Herritar guztiak emandako iritzi libreen bitartez erabakiko direnak. Lehengo astean ikusi ahal izan dugu geure herrian oraindik badirela gutxi batzuk bizi dugun egoera baketsua onartzen ez dutenak. Baina, normaltasunaren bidetik goaz, abiada azkarrean elkarrekin bizitzeko behar dugun oinarri komunaren bila. Bide horretatik, igandean emango dugu beste pauso bat aurrera, orain arte bizi izan ditugun hauteskunde libreenetan.

## Enpresa txikiak sortzeko laguntzak aurkeztu ditu udalak

Lasarte-Oriako Udalak merkataritzaren, ostalaritzaren edo zerbitzu pertsonalen arloan enpresa txikiak sortzeko laguntzak eskatzeko epea ireki du. Helburua hirugarren sektorea indartzea da.

Laguntzak 2018ko urtarriletik gaur egunera arte Lasarte-Orian

hirugarren sektoreko enpresa berri bat sortu duen pertsona fisiko nahiz juridikoek eskatu ahalko dituzte. Deialdia urriaren 31 arte dago irekia.

Oro har, gastuen %40 finantzatu da, 1.500 euro gehienez. Laguntzen oinarriak eta xehetasunak udaleko webgunean, 943 376 179 telefono zenbakian edo [d.avila@lasarte-oria.eus](mailto:d.avila@lasarte-oria.eus) helbidean eskuratu daitezke.

**Israel & Grezia**

**IRTEERA 2019ko IRAILEAN**  
Noaoak gidatutako talde bidaia.  
Lasarte-Oriatik irtenda.

**NOAOA**  
BIDAIAK

T.: 943 373 613 • [info@noaoa.eus](mailto:info@noaoa.eus) • Hipodromo Etorbidea 10, Lasarte-Oria

**MAiTE**

ESTETIKA ARETOA

Negua eta gero, presta ezazu  
**azala** udarako!

Zure azal motarentzat tratamendu egokiena aukeratuko dugu

Uistin Kalea z/g, Lasarte-Oria • Tel. 943 37 08 45

ZERBITZU MISTOAK



Zuri-beltzeko mundu batetik etorritako Kukuka dantza taldeko kideek ikusleekin eta bertsolariekin jolastu zuten. TXINTXARRI

# Sormena errimatzen Udaberriko bertso saioan

Musika, literatura, antzerkia... eta bertsolaritza. Udaberriko bertso saio ederra egin du Ttakun Kultur Elkarteak aurten ere. Ane Labaka, Maialen Lujanbio eta Andoni Egaña aritu dira koplaka, herriko hainbat artistaren lanak inspiratuta. Maddi Labakak jarri ditu gaiak

## Iñigo Gonzalez Sarobe

Aurtengo Udaberriko bertso saioa ere ez da txarra izan. Guztiz kontrakoa: Ane Labaka, Maialen Lujanbio eta Andoni Egaña lan bikaina egin zuten, eta baita eurekin oholtza partekatu zuten herriko artistek ere. Hainbat sormen lan oholtzaratu zituzten, eta Maddi Labaka gai-jartzailea inspiratu. Emanaldi horietatik ateratako ideiekin bota zizkien erronkak bertsolariei.

Hankaz gora jarri zuten kultur etxea Bea Egizabalek eta Intza Alkainek, eta sormen modalitate berri bat aldarrikatu: trapalaritza. Azken hilabeteotan bolo-bolo dabilen "apropiazio kulturala" kontzeptuari buruz ere hausnartu zuten, eta bertsolariei galdera hori bota.

Idoia Garzes idazlea izan zen oholtzara igo zen lehen artista. Duela gutxi Lizardi saria irabazi duen kontakizunaren zati bat irakurri zuen, Bixente Beltran txistulariaren laguntzarekin. Irla desertu batera ispilu bat eramango lukeela esanez bukatu zuen irakurketa eta hari lotutako

galdera bati erantzun behar izan zioten Ane Labakak eta Egaña: zer ikusten dute beraiek, ispiluaren aurrean jartzean?

Andaluziar kutsua hartu zuen gero bertso saioak. Semblante Andaluzeko kide Kiko eta Asierrek flamenko doinuak ekarri zituzten kultur etxera. Kopla horien hizkiek esaten zutena itzuli, eta beste batzuk sortu zituen Lujanbiok.

## Sormena, eraldaketarako arma

Kukuka antzerki eta dantza eskolako hainbat gaztek esketx labur batzuk oholtzaratu zituzten ondoren. Etxean sortzen diren liskarren ingurukoa bata, eta Guardia Zibilak bi euskalduni egindako alkoholemia kontrol bati buruzkoa bestea. Maddi Labaka gai-jartzaileak estu hartu zituen bertsolariak, eta erronka ederrak planteatu. Lehenik, telebista katea aukeratzekoan ados jartzen ez diren hiru ahaide, eta kontrola jarri zuten guardia zibilak gero. Barrez lehertu ziren ikus-entzuleak hiruen ateraldiekin.

Saioaren erdialdean ikusi zuten herritarrek sormen lan bitxienetako bat. Margolaritza eta txalaparta uztartu zituzten Ione Zabalak, Tomax Arrutik eta Pontxo Moralesek. Erretratu bat pintatu zuen Zabalak, bi musikarien perkusio erritmoa jarraituz. Sormenaren inguruan hausnartu zuen Ane Labakak, eta azaldu berarentzat duen esanahia. "Mundua eraldatzeko arma" dela abestu zuen, eta hitz bakoitzari "mila buelta" ematea.

Itzaletik argira pasatu zen auditorioa bat-batean. Aretoko ateak ireki, eta izaki arraro batzuk sartzen hasi ziren. Kukukako hainbat kide ziren, troll edo ogroz mozorrotuta. Besaulkietan eserita zeuden herritarrak zirikatatu zituzten aurrea; aspertzean, oholtza gainera igo ziren, bertsolariekin jolastera. Lujanbio ere txunditu zuen eszena horrek, eta bertsotara eraman zuen: "Ez dakit zonbiak ote diren, hildakoak, ala Zubietako erraustegiak sortutako izakiak?". Gaueko esaldirik txalotuenetako bat izan zen.



'Wild' murala izan zen 2017 urteko irabazlea. TXINTXARRI

## 'Guztion Lasarte-Oria!' mural lehiaketa martxan da

Aurtengo lehiaketan bost mural margotuko dituzte herriko hormetan; bakoitzak gai jakin bat izango du

### Txintxarri

Lasarte-Oriako udalak *Guztion Lasarte-Oria 2019* mural lehiaketako oinarriak argitaratu ditu. Aurten bost mural izango dira apainduko dituztenak, eta berrikuntza modura bakoitzak gai jakin bat izango du.

Kirolean oinarritutako horma irudia egingo dute Michelin kirol gunera sartzeko eraikinaren alboko paretan.

Festak, danborrada, erraldoiak... izango dira Blas de Lezo kalean udalak duen lokalaren aurreko fatxadan margotu beharko duten muralaren gaia.

Udal euskaltegiko eraikineko sarbidean euskara eta hezkuntzarekin zerikusia duen murala margotuko dute.

Zumaburuko haur-eskolako patioan haurren inguruko gaietan oinarritutako margolana egin beharko dute.

Eta azkenik, Iñigo de Loiola kalean dagoen udal lokalaren fatxadan ere horma irudia egiteko aukera izango da. Honakoan, ordea, gaia librea da.

Ekainaren 14ra arte aurkeztu daitezke proposamenak. Jasotako guztien artean bost aukeratuko dituzte, eta batek eramango du sari nagusia: 1.500 euro. Beste lau hautatuak ere ez dira esku hutsik joango, guztira 4.750 euro banatuko baitituzte.

Espazioen ezaugarriak eta lehiaketaren oinarriak Lasarte-Oriako Udalaren webgunean daude ikusgai, baita erregistroan ere.

Egitasmoaren helburua muralak dauden lekuen itxura hobetu eta oinezkoentzat gune atseginagoak eta erakargarriagoak sortzea da. Era horretan, Lasarte-Oriaren itxura hobetzeaz gain, jarduera ekonomikoa eta soziala ere bultzatzen da.

## 'Grietas', Leonen saritua

Xuban Intxausti Lasarte-Oriako zinemagileak zuzendutako *Grietas* dokumentalak Leongo Erresuma Telebista eta Zinema jaialdiko *Zentzua duten istorioak* saria lortu du. Amnesty International erakundearentzat egindako lanak Espainiako giza eskubideen urraketak salatzen ditu. Intxaustik maiatzaren 18an jaso zuen saria.





Marratzu, landatu edo eskulanak egiteko aukera izan zuten gaztetxoek ostiral arratsaldeko tailerretan. TXINTXARRI

# Aterpe bila ibili dira Udaberri Festan

Eguraldi txarra oztopo izan bada ere, Udaberri Festa ospatu du Aterpeak asteburuan. Haurrek primeran pasa dute hainbat komertziotan egindako tailerretan. Herritarrek osteratxo ederrak egin dituzte Lasarte-Orian barrena txu-txu trenera igota

## Iñigo Gonzalez Sarobe

Udaberrikoa bainoago, udazken edo neguko asteburua zirudien joan den astekoak: zeru goibela, euria goian-beheran eta haize ufada hotz eta zakarrak. Baldintza meteorologiko negargarri horiek ez zuten Aterpea merkatarien elkartearen animoa itzali, ordea; Udaberri Festa ospatu zuten.

Haurrak izan ziren ziur aski ongien pasatu zutenak. Ostiral arratsaldean loreak landatu zituzten Ormazabal loradendan; puntua egiten ikasi zuten Olmi mertzerian; gogotik izerditu zuten Saito Gimnasioan; marrazki ederrak egin zituzten Ola Enmarkazioak dendan; eta paperezko lore apain-apainak sortu Dulce Tentacion gozoki dendan. Tailer horiek bizitza eta giro ederra eman zieten komertzio horiei.

Plazak algaraz bete behar zituzten puzgarriak, berriz, Loidibarren frontoian jarri zituzten. Tokia toki, nekatu arte saltoka aritu ziren haurrak.

Egitarauan jasoak ziren ere barbakoa eta Arkupe nahiz Buenetxea tabernek antolatzen zuten kontzertua. Eguraldi txarra tarteko, bertan behera utzi zuten emanaldia aurrenekoak, eta larunbatera aldatu bigarrenak. Javier Lee Junior musikariak rock, country eta blues doinuak ekarri zituen tabernara.

Eguraldi txarrak ez zuen etenik eman larunbatean ere, baina kalera ateratzera ausartu ziren lasarteoriatarrek osteratxo ederrak egiteko aukera izan zuten Lasarte-Orian barrena ibili zen txu-txu tren txuri-urdinean igota. Goiz eta arratsalde aritu zen ibilgailua bueltaka, erdigunean.



Txu txu tren bueltaka ibili zen larunbatean erdialdeko kaleetan barrena. TXINTXARRI



TXINTXARRI

## Jauzi eta izerdi tanta solidarioak

Kirola ona da gorputzarentzat. Osasungarria. Gainera, helburu solidario batekin egiten denean, are lagungarriagoa da. Loidibarren pilotalekura larunbat goizean joan ziren dozenaka herritarren nahia hori zen. Saito gimnasioak antolatu zuen kirol elkartasun maratonia. Helburua: garun-paralisia duen haur bat eta haren familia diruz laguntzea.



L-O UDALA

## Itsasontzi berria parkerako

Atsobakar haur-parkerako itsasontzi berria egin eta instalatzeko kontratua esleitu du udalak. Montaje Garra S.L. enpresak egingo du, 58.397 euroko aurrekontuarekin. Kontratu horretan ere, Brunet parkean zabu berria jartzea adostu dute. Bi neurri hauek Herritarren Bulego Mugikorreko eskaerei erantzuten diete.

## Udal Musika Eskolako aurrematrikula egiteko epea irekiko da

Musika, harmonia edo musika tresnaren bat ikasi nahi duten herritarrek Udal Musika Eskolan izena emateko aukera dute astelehenetik aurrera.

Akordeoa, biolina, zeharkako flauta, gitarra, gitarra elektrikoa, pianoa, trikitixa eta panderoa, tronpetea edo txistuaz gain, aurten tresna berria ere aukeratu ahaliko dute herritarrek: perkusioa.

Aurrematrikula garaia ekainaren 7ra arte luzatuko da Manuel Lekuona kultur etxean, 9:00etatik 14:00etara. Eskaintzen eta hobarien informazioa ere bertan izango da eskuragarri.

Plaza eskaera egitea ezinbestekoa da, eta hori egiterakoan, kuotaren %10 ordaindu behar da. Uztailaren 8tik 19ra baieztatutako beharko da izena ematea. Matrikula egiten ez dutenek, ez dute ordaindutako dirua berreskuratuko.



Olatz Peñagarikano eta Ainara Loiarte Andoaingo Mintzalaguna eta Bidaide euskaren aldeko egitasmoetako ordezkariak dira. AIURRI

# Euskararen transmisioa familia giroan

Euskararen transmisioa familia giroan sustatzea, horixe da tokiko administrazio askotako eta euskararen aldeko mugimenduetako erronka. Asmoa beretsua da, toki guztietan: Hango eta hemengo herrikideak euskararen bidera erakartzea

Herrigune gehienetan ekimen interesgarriak daude. Andoainean, esaterako, Bidaide izeneko ekimena sustatzen ari dira, emaitza bikainekin.

**Familia giroan euskararen transmisioa bermatzeko zein baliabide eskaintzen dituzue?**

**Ainara Loiarte.** Familiei dagokienez, Bidaide izeneko programa garatzen ari gara. Mintzalaguna egitasmoaren adar bat dela esango genuke.

**Olatz Peñagarikano.** 2012tik hona ekimen ezberdinak abian jarri dira, urteen poderioz doituaz joan direnak. Hasiere batean jolasa euskaraz sustatzea zen helburua. Gerora, ekimenak aberastuz

joan dira. Urtean zehar hainbat ekintza antolatzen genituen, eta parte hartzen hasi zen kopurua igotzen hasi zen. Bidaide izenarekin ezaguna da ekimena, une honetan. Ipuin kontaketa saioak, dantza ikastaroak, sukaldari tailerrak, jolas kooperatiboak... ikasturtean zehar dozena erdi bat jarduera antolatzen ditugu.

**Erabat euskalduna ez den familiaren kasuan, egunerokoan euskara erabiltzen hasteko zein aholku emango zenioke?**

**Olatz Peñagarikano.** Kasuan kasu aztertu beharko litzateke. Gurasoetako bat euskalduna bada saia daitezela haurrekin

beti euskaraz egiten. Eta euren arteko harremana ere euskarazkoa izaten ahalegindu daitezela. Bestela haurrak euskara eskolako eta gauza akademikoetarako dela barneratuko du. Aisialdia erdararekin lotzera joko du.

**Ainara Loiarte.** Familia horien kasuan, euskara aisialdiarekin uztartzea lortu behar da. Esperientzia dibertigarriak euskaraz egiteko aukera ematea ezinbestekoa da.

**Zein erreferentzia aipagarri ezagutzen dituzue, Euskal Herrian barrena?**

**Olatz Peñagarikano.** Herrietan euskararen erabilera sustatzeko

geroz eta ekimen gehiago daude, eta hori pozgarria da. Errenterian, adibidez, 'Familia jolasean' egitasmoa martxan dago. Astean behin euskara eta jolasa uztartzeko hitzordua dute, ordu eta erdikoa. Begiraleen laguntzaz, ekimen ezberdinak egiten dituzte. Getxon, adibidez, 'Olgetan euskaraz' ekimena ezaguna da. **Ainara Loiarte.** AEK erakundeak, bestalde, 'Familiak euskaraz' izeneko egitasmoa antolatzen du. Gurasoak eta familiak barnetegian izaten dira, euskara ikasten ari den guraso hori gehienbat euskaraz inguratuta bizi dadin. Hizkuntza ohiturak aldatzeko garaian eraginkorra izan daiteke.

**Euskara ikasten ari diren guraso asko dago. Euskal jendartea jabetzen al da guraso horien esfortzuaz?**

**Olatz Peñagarikano.** Esfortzu handia egiten dute, bai. Bestalde, kalean askotan euskaraz badakien jendea gazteleraz hitz egiten ikusten dugu. Euskarara murgiltzeko ahalegina egiten ari den horri ez zaio behar adina aitortza egiten, ez. Euskara ikasten ari den horrekin solasean ari garenean, euskaldunok erosotasunagatik gaztelerara jo ohi dugu. Solasaldi horietan euskara lehenesteko esfortzua egin beharko genuke.

**Ainara Loiarte.** Euskaldunei pazientzia eskatuko nieke. Ikasten ari den pertsona horrek ikasitakoa praktikan jartzen ez badu, ez du erabilerarako pausua emango. Eta pauso hori ematea oso garrantzitsua da. Mintzalaguna bezalako programa horrexegatik da interesgarria, bi edo hiru pertsona elkartu eta beraien artean ohiturak aldatzen hasteko giltza delako.

**Euskararen bidean dagoenari laguntza eman behar zaio, ezinbestean. Lehen hitza euskaraz eginez, edo asmatzen ez duen kasuan esaldia amaitzen lagunduz.**

**Ainara Loiarte.** Bai, eta zerbait gaizki esaten badu, bromarik ez egitea. Hortik jarraitzea lortu behar baitugu, azkenean hobetzen joateko euskaraz aritzea besterik ez baitago. Arian arian, lotsa galdu eta aurrera jarraitu beharra dago.

**Olatz Peñagarikano.** Ikasten ari direnekin enpatia garatzen ari garela esango nuke, baina asko kostatu zaigu besteen lekuan jartzea eta aukera horiek ematea.

**Euskaraldia zenbateraino izan da garrantzitsua?**

## Nola lagundu?

Tokian tokiko euskara lansailetan euskararen erabilera sustatzeko informazioa aurki daiteke. Egunerokoan, bestalde, guraso euskaldunek euskararen bidean direnei laguntza eskaini behar diete. Ez da lan handia, eta eskaintzen den laguntza euskaldun berriari oso baliagarria izango zaio.

**Olatz Peñagarikano.** Euskaraldiak buruan ez genuen hausnarketa egitera eramane gaitu. Ohituraz, gazteleraz hitz egiten genion jendeari. Edo lehen hitza gazteleraz eginda gazteleraz jarraitzen genuen. Euskaraldia iraganeko ohiturak aldatzen joateko eta barne hausnarketa sakona egiten hasteko baliagarria izan zen. Horrelako ekimenak beharrezkoak dira.

**Nola murgildu daiteke familia erdaldun bat euskalduntze prozesuan?**

**Olatz Peñagarikano.** Jendea euskaraz agurtuz has daitezke, eta haurraren irakaskuntza prozesuan inplikatu. Haurrak gurasoen interes hori eskertzen duela esango nuke. Umeak marrazki bizidunak ikusten baditu, pasiboki bada ere, gakoa euskara pixkanaka egunerokoan sartzen hastea da.

**Ainara Loiarte.** Dakiten gutxi hori erabiltzen has daitezela, eta hortik aurrera erabilera areagotuz joan daitezela. Besteak beste, denboran zehar ikasten doazen hitzak eta esaldiak erabiliz.

**Eguneroko kasuetara itzul gaitzen. Nola lagundu familia bati eskolan, parkean?**

**Ainara Loiarte.** Guraso euskaldunen jarrera garrantzitsua da, gehienbat ikasten ari den pertsona horri lehen hitza euskaraz egiteko garaian. Hori eginda, pixkanaka hizkuntza ohiturak aldatuz joan dira.

**Olatz Peñagarikano.** Garrantzitsua da haurrek gurasoak koherentzia jokatzen ikustea. Haurrari euskaraz egiteaz gain, haurrak bere gurasoak ingurukoekin euskaraz hitz egiten ikusi behar ditu. Haurrak inkoherentzia horiez oso kontziente baitira.



# "Erakutsi dugu ez dagoela ezinezkorik"

**IRAIA IPARRAGIRRE** REALEKO JOKALARIA

Kopako finala oraindik buruan, denboraldia bukatzeaz dago jokalaria txuri-urdina. Atsedean hartu nahi du, hurrengo denboraldian indar gehiagorekin bueltatzeko



Iraia Iparragirre, kopa eskuetan, Lasarte-Oriara iristean Realarekin. TXINTXARRI

## **Adrian Garcia**

Pasa dira ia bi aste, baina oraindik lortutakoa "asimilatzen" ari da Iraia Iparragirre (1995, Lasarte-Oria), normaltasunera itzultzeko ahaleginean. Maiatzaren 11ko finaleko protagonista izan zen; Realak 32 urtean lehen titulua eskuratu zuen, neurri handi batean defentsa lan onari esker. Eskuin hegalean hasieran, ezkerrean bukaeran, partida osoa jokatu zuen Iparragirrek.

## **Bukatu al dira dagoeneko ospakizunak? Hasiko zineten normaltasunera bueltatzen, ezta?**

Normaltasun moduko batean sartzen hasi gara. Publikoari begira, pasa dira ospakizun guztiak; orain norberak bere buruarekin duen asimilazio prozesu horretan gaude. Atsedean egun batzuk eduki ditugu, baina jarraitzen dute entrenamenduek; Euskal Herriko Kopa jokatu dugu datorren astean Alavesen aurka.

## **Gipuzkoari bira eman zenioten ospakizunetan. Nolakoak izan zen?**

Izugarria, ez nuen inondik inora espero horrenbeste jende bilduko zenik herri bakoitzean. Herri pare bat kenduta, beste guztietan ikaragarria izan da harrera egin digun jende piloia.

## **Eta batez ere, zuretzat berezia izango zen Lasarte-Oriatik pasatzea.**

Oso emozionatuta nengoen, eta ez zitzaizkidan hitzak ateratzen. Hitzaldi txiki bat prestatu nuen, nire herriko jendeari hitz batzuk esateko. Baina ezin nion eskuko telefonoari eutsi ere egin; balkoira atera, eta horrenbeste jende egotea, denak gu ikustera etorriak... Oso hunkigarria izan da.

## **Anoetako partida, San Mames... Emakumeen futbola indartu da aurtur, eta, gainera, tituluarekin errematea eman diozue.**

Iberdrolak liga babestu duenetik gure presentzia areagotzen hasi da, eta hori da gakoa, nire ustez. Ikusarazi dugu emakumeak ere bagaudela borrokan, futboleko jokatzeko. Eman du zeresana, eta balio izan dio jendeari iritzia aldatzeko.

## **Orain lan baldintzak falta dira hobetzea.**

Pixkanaka etorriko da, ezin da egun batetik bestera aldatu hori. **30 urte baino gehiago titulurik irabazi gabe, eta emakumeen taldeak irabazi du kopa.**

Kopa irabaztea ikaragarria izan da; nire ustez, klubari ere handi

geratu zaio, denori geratu zaigu handi. Gainera, Gipuzkoan eduki duen eragina nabarmentzekoa da, gerora begira aurerrapauso handia izango da. Ondo baloratu behar da nora iritsi garen, eta hemendik aurrera zer pauso eman behar diren.

## **Herrietan neska txiki asko ikusi dira Realeko elastikoarekin.**

Bai, oso polita da. Ostadarreko entrenatzaileak esan zidan beste hiru neskek izena eman dutela futbolekoan.

## **Finalean ez zineten faboritoak, baina partida bakarrera egia da edozer gauza gerta daitekeela.**

Guk ez genuen ezer galtzeko, bagenekien zertara gindoazen. Guretzat urte guztiko sakrifizioaren emaitza zen finala, gozatu besterik ez genuen egin behar. Ligako azken partida haien aurka izan genuen; hor ere lanketa berezia izan genuen, probak egiteko. Psikologikoki eta fisikoki prestaketa eduki genuen; gakoa hori zen. Atletico Madril oso talde indartsua da, oso zaila da haiei irabaztea. Baina ezer ez da ezinezkoa, eta hori erakutsi dugu.

## **Eskuin hegalean jokatu zuten hasieran. Lanak izan zenituen aurrelariak gelditzeak.**

Bagenekien hegaletatik min asko egingo zigutela, hortik bideratuko zutela eraso. Txipa aldatu genuen bigarren zatian, eta bigarren golak eman zigun behar genuen energia positiboa finala irabazteko.

## **Denboraldi gorabeheratsua borobildu duzu finalarekin.**

Nire helburua zen finala jokatzeko, minutu batzuk baziren ere. Eta begira nola bete den. Finalerdian min hartuta nengoen, eta ez nuen jokaterik izan. Arantzatxo hori kendu nahi nuen. Denboraldia ondo hasi nintzen, baina gero horrenbeste ez dut jokatu. Nik ez du erabakitzen, entrenatzailearen hitza da.

## **Kontratua berri duzu 2020. urtera arte. Zer helburu dituzu hurrengo denboraldira begira?**

Denboraldi amaiera honek gauza asko pentsarazi dizkit. Lanean jarraitu behar dut, ahalik eta minutu gehien edukitzeko, eta futbolarekin gozatzeko. Realean jokatzeko pribilegio bat da, edonork ezin du hori esan. Udara horretarako erabiltzen dut; hausnartu, eta hurrengo urtera begira zer hobetu dezakegun ikusteko.





Autobusez iritsi ziren jokariak herrira, Gipuzkoari emandako biran. TXINTXARRI



Lagunak eta ezagunak agurtu zituen Iparragirrek. TXINTXARRI



Iparragirre, udalbatzarrean sartzen. TXINTXARRI



Iparragirre, taldekideekin batera, udaletxeko balkoian titulua ospatzen. TXINTXARRI



Ikusmin handia sortu zuen Realak herrian. TXINTXARRI



Juarez, helmugara iristen. IVAN AZURMENDI



Igeri ostean, bizikleta hartzeko prest. IVAN AZURMENDI

# Burua hotz, txukun debutatzeko

Trinko taldeko Leonardo Juarezek IronCat triatloiko distantzia luzeko proba osatu du, 11 ordu pasatxotan

## Adrian Garcia

Triatloilari guztien buruan egon da noizbait distantzia luzeko proba bat egitea. Kirol diziplina horretako lehiaketa mitikoa da, erresistentzia lasterketa gogorrenetarikoa. Leonardo Juarezek zazpi urte daramatza triatloian, eta iaz hartu zuen erabakia. "Nire koinatua ikusi nuen Gasteizen distantzia luzeko proban, eta erabaki nuen nik ere probatu behar nuela". Esan eta egin. Joan den asteburuan L'Ampollan egon da Trinko Triatloi Taldeko kidea, Katalunian; IronCat lasterketa osatu du 11 ordu eta 15 minututan.

"Sentitu nahi nuen zer den proba hori egitea". Tarragonatik bueltan bildu da TXINTXARRI-rekin, balentriaren nondik norakoak emateko. Kataluniakoa a proposa da distantzia horretako debuta egiteko. Bizikletako zatia laua da, baita korrikakoa ere.

Ikusleentzako ere baditu abantailak; hainbat itzuli egin behar dituzte lasterkariek, eta behin baino gehiagotan ikusteko aukera dute.

## Lagunen ezustekoa

Familiarekin asteburu pasa luzea egiteko aprobe txatu du lasarteoriarrak. Baina ezusteko polit bat ere jaso zuen, igerian hasi aurretik. "Irteteko prest nengoen, nahiko urduri. Eta oso ezaguna egin zitzaidan txistu bat entzun nuen". Burua altxa, eta kuadrillakoak ikusi zituen pankarta handi batekin. "07:00ak ziren, gau osoa bidaiatu zuten ni ikusteko. Hunkitu egin nintzen; motibazio estra bat izan zen".

L'Ampollako portuan egin zuten igeriketako zatia; 3.800 metro zirkuitu bati hiru bira emanda. "Banekien zer erritmotara joan behar nintzen. Lehen zatia da,

ez da komeni gehiegi estutzea". Ordubete eta bederatzi minuturen ondoren bizikleta hartzeko prest zegoen.

Hain zuzen, horixe da hoberen datorkiona Juarezi, probako bigarren zatia. Zirkuitu bati sei bira eman, eta 180 kilometro osatu zituen bizikletan, sei ordu eta hamalau minututan. Alegia, 28 kilometro orduko baino gehiagoko bataz bestekoan. "Sei bira, azkenak bai kosta egin zitzaizkidan. Gainera, azken bietan haizeak asko jotzen zuen; kostaldetik barrera zoaz, eta alde ematen dizu haizeak".

Horrez gain, beste ezusteko bati ere aurre egin behar izan zion: gurpila zulatu zuen 60 kilometroan. "Ganbera aldatu nuen, baina eskuz puztu behar izan nuen. Noski, gurpilean sartzen duzun presioa ez da berbera, eta gainerako 120

kilometroak beldur pixka batekin egin nituen".

## Maratoia

Azken zatian maratoi bat osatu behar dute atletak, eta indarrak neurtu behar dituzte proba osoan. "Ordu asko dira. Bizikletatik nekatuta jaisten bazara, oso gaizki pasatuko duzu korrika".

Burua hotz jokatu zuen Juarezek, eta jokaldia ondo atera zitzaion; maratoiaren azkeneko zatian hasi zen sufrizten. Baina eginga zuen ordurako. "Azken biran hasi zitzaizkidan muskuluak gogortzen". Proba bukatzeko gogoak hauspotuta iritsi zen helmugara. 3 ordu eta 51 minutu behar izan zituen 42 kilometroak betetzeko. "Ez da bakarrik poza bukatzeagatik. Oroitzen zara prestatu ahal izateko egindako sakrifizio guztiez".

## ASTEBURUKO HITZORDUAK

### FUTBOLA

INFANTILAK IGOERA FASEA: FINALERDIAK

Ostadar SKT - Real Union  
Igandea. 10:30. Michelinen.

SENIORRAK  
EUSKAL HERRIKO KOPA

Reala - Alaves  
Asteartea. 19:30. Arrasaten.

### ARETO FUTBOLA

HERRIKO TXAPELKETA

Insausti - Asador Irigoien  
Larunbata. 09:15. Kiroldegian.

Buenetxea - Patricio Cocktail  
Larunbata. 11:15. Kiroldegian.

Trumoi - Avenida  
Larunbata. 10:15. Kiroldegian.

Izen Gabe - Viña del Mar  
Larunbata. 12:15. Kiroldegian.

### PILOTA

INFANTILAK  
UDABERRIKO TXAPELKETA

Intza 1 - Soraluze  
Ostirala. 20:00. Michelingo frontoian.

SENIORRAK  
LAU T'ERDIKO TXAPELKETA

Intza (Artetxe) - EPLE (Aranburu)  
Ostirala. 20:00. Michelingo frontoian.

### IGERIKETA

ESKOLARTEKO JOKOAK

Euskadiko Eskolarteko  
Kirol Jokoak.  
Larunbatean. 10:00. Santurtzin.

SAN MARTZIAL SARIA

Infantilak, juniorrak eta absolutuak.  
Larunbata. 10:00. Irungo Azken Portu kiroldegian.

ZARAUTZ SARIA

Infantilak, juniorrak eta absolutuak.  
Larunbata. 16:00. Zarautzen.

HIRU HONDARTZETAKO ZEHARKALDIA

4.600 kilometroko zeharkaldia osatuko dute igerilariek. Hainbat herritarrek eman dute izena.  
Igandea. 12:00. Donostian.

### LASTERKETAK

AMARA BERRIKO KROSA

Hiru eta sei kilometroko lasterketan izena eman dute hainbat herritarrek.  
Larunbata. 19:00. Donostian.

### GIMNASTIKA

EUSKADIKO AMATEUR TXAPELKETA

Goiz eta arratsalde arituko dira herriko gimnastak. Goizez: Jaione Martos eta Paula Martinez. Arratsalde: Aizpea Arroyo, Garazi Gomez, LOKE taldea.  
Larunbata. Egun osoan. Durangoko Landako kiroldegian.

# Domina uzta Gipuzkoako gimnastika txapelketetan

LOKEko gimnastak eskolarteko eta amateur mailako txapelketetako podiumetara igo dira banaka, zein taldeka. Euskadiko txapelketan izango dira lehen hurrengo bi asteburuetan. 2019-2010 denboraldian, Alexia Barquin infantil A mailan lehiatuko da

## Txintxarri

Intentsitate handiko asteburuak izan dituzte LOKEko gimnastek. Gipuzkoako txapelketak lehiatu dituzte maila eta tresna ezberdinetan. Talde sendoa eta etorkizun handikoa duela erakutsi du LOKEk. Podiumeko lehen postuetan izan dira bakarka zein taldeka, eta Aizpea Arroyok eta Alexia Barquinek Gipuzkoako txapeldun titulua eskuratu dute senior A mailan eta infantil B mailan, hurrenez hurren. Aste hauetan jokatuko diren Euskadiko txapelketak dituzte orain buruan.

Maiatzaren 19an, Azpeitian izan zen Gipuzkoako amateur mailako txapelketan banakako gimnastek lortu zituzten emaitza onenak. Senior A mailan Aizpea Arroyo eta Garazi Gomez podiumeko lehen bi postuetan izan ziren sailkapen orokorrean. Uztaia eta borrekin lan egin behar izan zuten gimnastek. Arroyok lan ederra egin zuen bi tresnekin eta bi mailatan lehen postua eskuratu zuen; Gomezek, ordea, hirugarren amaitu zuen bietan.

Senior A taldea ere podiumean izan zen. Pilota eta borrekin egindako lanak bigarren postua eman zien.

Jubenil B mailan, berriz, Paula Martinez zintako podiumeko maila gorenean izan zen eta lehiaketa orokorrean hirugarren mailan egon zen Jaione Martosekin batera. Martosek seigarren postua egin zuen pilota lanean.

Maitane Arroyok eta Mirian Prietok ere dominak eskuratu zituzten kadete B mailan. Prietok berriz bigarren postuan amaitu zuen lehiaketa eta Arroyok hirugarren, uzta lanean. Sailkapen orokorrean bigarren izan ziren.

Maila honetako taldeek ez zuten egun ona izan. Tresnen erorikoak medio, LOKE-Oriarte taldeak



Garazi Gomez eta senior taldea, Aizpea Arroyo barne, entrenatzaileekin. LOKE GIMNASIA

zazpigarren postua eskuratu zuen eta LOKE-Santa Teresak hamargarrena.

Bestalde, maiatzaren 11n, Tolosako Usabal kiroldegian jokatuko zuten eskolarteko txapelketa. LOKEko gaztetxoek ederki egin zioten aurre erronkari. Harrobia indartsu datorrela erakutsi zuten.

## Eskolartekoan ere ederki

Infantil B mailan lortu zuten garaipenik esanguratsuenak. Alexia Barquinek Gipuzkoako txapeldun titulua erdietsi zuen, pilota lanean lehena izan eta uztaileko podiumean bigarren postua eskuratu ostean.

Dominez gain, emaitza horrek badu bestelako balioa. Barquinek maila igoera lortu baitu. Beraz, hurrengo ikasturtean A mailan ariko da.

Podiumean izan zen beste gimnasta Eneritz Diaz de Gereñu du. Bere lehen urtean txapelketa denboraldi ederra egin du gazteak. Alebin B mailatik A-ra salto egin, eta orain hiru domina eskuratu ditu Gipuzkoako txapelketan. Esku hutsik egindako lanean hirugarren postua lortu zuen

eta soka lanean bigarrena. Hori horrela, sailkapen orokorrean hirugarrena izan zen herritarra.

Maitane Sarmiento ere alebin B mailako sokako podiumean izan zen, hirugarren postuan.

Lan ona egin zuten ere Aitana Molano infantil B mailako gimnastak eta alebin B mailako Landaberri taldeak. Biek zazpigarren postuan amaitu zuen lehiaketa.

Emaitza hauek guztiekin eta gimnastek egindako lanarekin "oso pozik" agertu da LOKEko entrenatzaile taldea. Halaber, emaitza horiei esker, gimnasta guztiak Euskadiko txapelketarako sailkapena lortu dutela jakitera eman dute.

Senior, jubenil eta kadete mailako gimnastek asteburu honetan, maiatzaren 25ean eta 26an, izango dute hitzordua Durangon. Eskolarteko mailako gimnastak, aldiz, ekainaren lehen lehiatuko dira Santurtzin. LOKEko gimnastek buruan dituzte iazko emaitzak. Garazi Gomezek zilarrezkoa domina lortu zuen eta Senior A mailako taldeak brontzezkoa. Aurten ere maila oneko parte hartzea egitea espero dute.

## Partida erabakigarriak herriko areto-futbol txapelketan

ISU Leihoak taldeak Gipuzkoako II. mailako finalerdia galdu zuen 2-6 Egarri tabernaren aurka

## Txintxarri

Lasarte-Oriako areto-futbol txapelketa azken fasean sartu da. Ostiralean eta larunbatean, txapeldunen fasea eta kontsolazio faseko lehen partidak jokatuko dira.

Final handiari begira, Insausti Tabernak 3 eta 2 garaitu zuen Asador Irigoien taldea. Buenetxea tabernak eta Patricio Cocktail Bar taldeek, aldiz, bana berdindu zuten. Gauzak honela, ekainaren lehen txapelketako final nagusian zein talde egongo diren larunbatean Maialen Chourraut kiroldegian jokatuko diren joaneko partidatan erabakiko da.

## Finalik ez

Bestalde, ostirala egun garrantzitsua zen ISU Leihoak taldearentzat. Gipuzkoak II. mailako finalerako sailkapena zuen jokoan. Etxean jokatzeak alde egingo zuela zirudien arren,



Insausti-Irigoien partida. TXINTXARRI

Cristian Arroyoren mutilek ezin izan zuten Egarri tabernaren aurka. Partida berdindua izan behar zuen, baina arerioak hobeto irakurri zuen partida eta intentsitatea jarri zion jokoari. ISUko kideak erantzuten saiatu arren, ez zuten atera begira zortetik izan. Azkenean, 2 eta 6koa izan zen markagailuan.

## Ostadar, nahi eta ezin

Ostadar SKTk Gipuzkoako senior mailako hirugarren amaitu du liga. Ezin izan zuen Antigua Luberrri garaitu finalerdietako itzuliko partidatan, 45-43, beraz, ez da finalean izango. Ander Otaegiren taldeak 5 puntuko errentari aurre egin behar zion. Hasiara txarra izan arren, partidari buelta eman, eta berdintzea lortu zuen Ostadarrek. Ez, ordea, aurre hartzen, eta saririk gabe geratu zen.



TXINTXARRI

## Alex Saleta Espainiako seven selekzioarekin

Urte ederra ari da gauzatzen Alex Saleta errugbilari gaztea. Apirilean, Errusian 18 urtez azpiko Europako azpitxapendun izan zen Espainiako selekzioarekin eta orain maila bereko Europako seven selekzioak deitu du.

Abuztuaren 17an eta 18an, Gdantxen, Polonian jokatuko duten Europako seven txapelketarako taldea osatu eta

prestatzen ari da Gorka Bueno entrenatzailea. Horregatik, aste honetan, maiatzaren 19tik 22ra Valladoliden izan den kontzentrazioan egon da lanean Beltzak ZRTko gaztea.

Bestalde, hurrengo asteburuan, goi mailako errugbiaz gozatzeko aukera izango da Michelin kirol gunean. Hirugarren urtez, Aitor Uranga Memoriala antolatu du Beltzak taldeak. Aurten Burgoseko Pingüinas eta Segoviako RAC Lobos taldeak gonbidatu dituzte.

# Eslalomgile onenen artean sailkatu dira

Ostadar Inklusioko kideek hainbat domina irabazi dituzte asteburuan El Prat de Llobregaten jokaturako Espainiako Eslalom txapelketan. Malen Urkiri izan da txapelketako onena, irabazleen arteko proban nagusitu da

## Txintxarri

Pozik daude Ostadar Inklusio taldeko kideak. Eta ez da gutxiagorako. Asteburuan Espainiako Eslalom txapelketan lehiatu ziren Xuban Santin, Malen Urkiri, Ane Asensio eta Ander Goenaga, eta emaitza onak eginda bueltatu dira etxera. Urkiri, bereziki, txapeldunen proban gailendu baitzen Bartzelonako El Prat de Llobregaten aurrera eramandako norgehiagokan.

Eslalomak kirolariaren teknika, abilezia eta abiadura proban jartzen du, gurpil aulkian prestatutako zirkuitua osatu behar dute parte hartzaileek. Lau gurpileko (WS4) eta bost gurpileko (WS5) aulkien probetan lehiatu ziren gizonezko eta emakumezko kategorietan.

Hiru probatan neurtu zituzten indarrak: erlojupekoa, kanporatzea eta taldekako kanporatzea. Larunbatean egin zituzten igandeko finaletarako sailkatze probak. Trebeenen artean aritu ziren urdin-beltzak bi egunetan. Izan ere, Santin izan ezik, domina bat baino gehiago leporatuta baitzuten gainerako kirolariek.

Erlojupekoan, zilarrezko domina bana lortu zuten Asensio, Goenagak eta Urkiri, bakoitzak



Taldekako kanporatze proban zilarra lortu zuen taldea urdin-beltzak. OSTADAR INKLUSIOA

bere kategorian. Bakarkako kanporatzean, Urkiri urrea eskuratu eta Espainiako errekor berri bat ezarri zuen 24,73ko denbora eginda. Asensio eta Goenagak, aldiz, bigarren postua errepikatu zuten. Taldea ere

## OSTADARREK ZILARREZKO DOMINA LORTU ZUEN TALDEKAKO KANPORATZE PROBAN

maila bera mantendu zuten. Kanporatze proban, beste zilarrezko domina bat leporatu zuten Ostadar Inklusioko kideek, FESA elkarteko Laura Moragues kirolariarekin taldea osatuta.

Txapeldunen artean txapelduna Urkiri bera izan zen, azken proba horretan nagusitu. Aintzatespen hori ere gehitu zion asteburuko onari.

Teknikari lanetan aritu diren Jokin Garcia, Iker Urkiri eta Jurgi Olasagasti pozik daude kirolariek egindako "lan zoragarriarekin".



BURUNTZALDEA IKT

## Errekorrak eta dominak, Gijonen

Buruntzaldea IKTko Leire eta Ainhoa Martin, Nora Imaz, Nerea Santos eta Aintzane Sarobe Gijongo txapelketan lehiatu dira asteburuan Gipuzkoako selekzioarekin. Ainhoa Martin izan zen herrialdeko taldetik podiumera igo den bakarra, 100 eta 200 metro bular probetan zilarra eta brontzea lortuta, hurrenez hurren. Halaber, Martin ahizpek taldeko hainbat errekor berri ezarri dituzte.



EUGENIO POZO

## Carbayeda beste behin garaile

Buruntzazpiko Beñat Carbayeda eta Haimar Etxeberria txirindulariek Miguel Ramirez memorialean parte hartu dute Euskadiko kadete taldearekin. Bi probetan nagusitu dira: 6 kilometroko erlojupekoan Carbayeda, 50 kilometroko lasterketan, berri, Etxeberria; jarraian iritsi zen Carbayeda eta sari orokorra eskuratu zuen. Taldea ere igo ziren podiumera, Euskadiko selekzioa gailendu baitzitzaizen Andaluzia, Katalunia eta frantsesei.

## Emaitza txukunak Leitzako eta Ereñotzuko mendi lasterketetan

Lasarte-Oria traileko Xanti Trantxe eta Javi Olazagoitiak bederatzi ordutan osatu zuten EH Mendi Erronka

## Txintxarri

Bi mendi lasterketa ezagunetan parte hartu zuten herriko korrikalariek asteburuan. Leitzan hasi eta amaitu artean Aralar mendikatean barrena jokaturako VII Euskal Herria

Mendi Erronka osatu zuten Xanti Trantxek eta Javi Olazagoitiak. Ultra trailak 67 kilometroko ibilbidea eta 3.700 metroko desnibel positiboa du, Artiz-Betelu, Larrun eta Lekunberritik pasatuta. Bederatzi ordu

pasatxotan egin zuten: 9h11' eta 9h22', hurrenez hurren.

Egun berean egindako Ereñotzuko mendi lasterketan lau lasarteoriatarrek parte hartu zuten. Horietan helmuga zeharkatzen lehena Marc Bages izan zen, 24. heldu baitzen 01:20:47-ko denbora eginda. Ia ordu erdi geroago heldu zen Granado, 01:46:46, 119. bukatuta. Antonio Ferrerak eta David Alonsok batera amaitu zuten proba, 2:12:43 behar izan zuten horretarako.



Xanti Trantxe eta Javi Olazagoitia lasterketa aurretik. LASARTE-ORIA TRAIL

## KOMIKIA




## ZORION AGURRAK



**Sergio**  
6 urte dagoeneko!! Urtebetetze egun ederra izan dezazula opa dizugu eta zure irribarreak alaitzen jarrai gaitzala. Zorionak maitia!! Zure familia guztiaren partetik. Asko maite zaitugu!!




**Txetxu eta Montse**  
Zorionak Txetxu y Montse! Zuen familiak ezkontza egun ona pasa dezazula opa dizue. Hor egongo gara denak behar den bezala ospatzeko. Txin-txin... Gora ezkonberriak!!



**Maddi**  
Zorionak maitia! Jadanik 6 urte zoragarri zurekin! Asko maite zaitugu! Oier, Unax, aita eta ama.



**Enaut**  
Zorionak Enaut!! "Txapeldun", horrela jarraitu!! Ondo ospatu zure 16 urtebetetzea. Oier, aitona-amona eta familiaren partetik bihotza.



**Ainara**  
Zorionak printzesa zure bigarren urtebetetzean!! Muxu haundi bat familiaren partez.

## GUTUNAK

### Borrero isila

#### ALBERTO PECHARROMAN

Zuhaitz batzuk (Oriako pinuak) giza krudelkeriaren monumentu bihurtzeko errotik moztu? Dena balio du gure zibilizazioaren oinarri



eta gaitz diren merkatariei -kotxeak saltzen dituen denda bati- ikuspen gehiago emateko.

Ez da harritzekoa udal honek eskuzabalki loreak eta fruituak eskaintzen dituzten izaki isil eta babesgabeak zigortzea. Gure garaiko keinu koldarra da, hipokresia handiz, hazkunde infinitorik ez duen erlijioaren aurrean amore ematea.

Honelako gauzengatik, etorkizuneko belaunaldiek auzitara eramango gaituzte. Jada ez da posible ezjakintasunaren lubakian geratzea.

## GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala, 24 GIL  
Larunbata, 25 GANDARIAS-URIBE  
Igandea, 26 GANDARIAS-URIBE  
Astelehena, 27 ACHA-ORBEA  
Asteartea, 28 URBISTONDO  
Asteazkena, 29 GANDARIAS-URIBE  
Osteguna, 30 ORUE

**EGUNEKO FARMAZIAK: 9:00-12:00**  
ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52  
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49  
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51  
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74  
GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29  
URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67  
GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

### GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00

Castilla-Larburu: Urbietea kalea 7, Hernani/ 943 55 29 41

**Gipuzkoako farmazien eskuko telefonorako 2017ko egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 215800 zenbakira.** Gehieneko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera (www.cofgipuzkoa.com).

## TELEFONOAK

### UDALAREN TELEFONOAK:

ERREGISTROA: 943 371 629  
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943 376 184  
KIROLDEGIA: 943 376 182  
MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA: 9 43 376 181  
GIZARTE ZERBITZUAK: 943 376 179  
KIUB: 943 361 605  
UDAL EUSKALTEGIA: 943 361 621  
MUNTTERI AEK: 607 625 233

### LARRIALDIKO TELEFONOAK:

OSASUN ZENTROA: 943 007 960  
DYA: 943 464 622  
GURUTZE GORRIA: 943 363 953  
UDALTZAINAK: 943 362 442  
ERTZAINZA: 943 538 840  
SOS DEIAK: 112

## SUDOKUA

9	4				2	6	3
			2	3			
3		9				8	5
		4		5	1		9
2			8	6		5	1
1		7		2			8
	9	5		3		4	2
	1	8			2		
		3	1			8	

## JAIOTAKOAK


**Abril Lucia Espinoza Trujillo.** Maiatzaren 18an.  
**Ian Manzaneres Fadrique.** Maiatzaren 14an.

## HILDAKOAK

**Miguel Artola Garin.** Maiatzaren 16an.

## EGURALDIA LASARTE-ORIAN

### Ostirala, 24




### Larunbata, 25




### Igandea, 26




### Astelehena, 27




### Asteartea, 28



### Asteazkena, 29



### Osteguna, 30



**ESKELAK JARTZEKO**

**TEL: 943 37 14 48**  
edo TXINTXARRI erredakzioan

► Eskela Txintxarri paperean: **80 €**  
► Eskela Txintxarri paperean + Txintxarri.eus-en: **90 €**

**Txintxarri: doan eta euskaraz**  
**Lasarte-Oriako etxe guztietan 943 37 14 48**

## AZOKA TXIKIA

### ETXEBIZITZA

#### ERRENTAN EMAN

Garajeko marra bat alokatzen dut, hilabetean 60 eurotan, Pablo Mutiloizabal 2. zenbakian. Telefonoa: 688 655 218.

### LANA

#### ESKARIA

Zerbitzaria behar da Lasarte-Oriako taberna baterako. Interesatuak deitu: 607110365.

### ESKAINZA

Lan bila nabil, pertsona zaharrak edo haurrak zaintzeko prest, interna bezala, orduka, gauean, asteburuetan. Telefonoa: 722 17 81 77.

Laguntza behar duzu? Lasarte-Oriako pertsona eskaintzen da etxea garbitzeko, janariak prestatzeko, plantxa egiteko... Esperientziaduna. 659 429 221.

Pertsona eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko. Orduka, jaiegunetan, zein asteburuetan. Ospitalean gauak ere egiteko prest. 606 661 048.

Pertsona serioa eta arduratsua eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Interna edo externa bezala. Lanean hasteko prest. 663 488 438.

## NABARMENDU ZURE EDUKIA

Iragarki nabarmenduak soilik kobratuko dira, azoka txikiko iragarkiak doan izango dira


### TAMAINA BERRIA

Modulo txikia. 12 € + BEZ barne publizitatea@ttakun.eus

### TAMAINA BERRIA

Modulo handia. 20 € + BEZ barne publizitatea@ttakun.eus 646.824466

## MANTTANGORRI HIRIBUSA



## Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:05	12:15	12:20	12:25
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

**txintxarri**

www.txintxarri.eus

### PUBLIZITATEA

Geltoki kalea 4  
Tel.: 943 37 14 48 (106)  
WhatsApp: 646 82 44 66  
publizitatea@ttakun.eus

### EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarte  
Geltoki kalea 4  
Tel.: 943 37 14 48 (104)  
WhatsApp: 688 68 35 10  
txintxarri@txintxarri.eus

### Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua: SS-513/94

ISSN: 1134-0053

Tirada: 8.000 ale

BABESLEA



**LASARTE-ORIA**  
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA  
DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLITICA LINGUISTICA



Gipuzkoako Foru Aldundia

# AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENA ARRATSALDEA BAINO LEHEN.



**LASARTE-ORIA Dantzari eguna eta Dantzari txiki eguna.** V. Dantzari Eguna eta Dantzari txiki Egunaren 31. edizioa antolatu ditu Erketz EDT taldeak. Larunbatean helduen txanda izango da. Aurten Kukuka Antzerki eta Dantza taldeko kideak eta Oñatiko Oñatz Dantza Taldea izango dira oholtzan. Arratsaldeko 19:00etan egingo dute emanaldi nagusia. Aurretik taldeen kalejira izango da herritarrak emanaldira gonbidatzeko. Igandean, berriz, Falcesko Makaia Dantza Taldea, Bera de Bidasoako Gure Txokoa Dantza Taldea, Erreterria Musikal, Usurbilgo Orbeldi dantza taldea eta Kukuka Antzerki eta Dantza Eskolako gaztetxoek alaituko dituzte kaleak. Arratsaldean, alarde txiki batek Kale Nagusia zeharkatu eta Okendo plazara iristean, talde bakoitzak emanaldi txiki bat eskainiko du. Eguraldi txarra izanez gero, Dantzari eguneko emanaldia Loidi Barren frontoian egingo da eta Dantzari txikiakoa, berriz, Michelin Kirol gunean. Larunbata eta igandea, Okendo plaza.

## OSTIRALA 24

### ZUBIETA Udaberri festa

Zubietako eskolako kideek udaberri festa antolatu dute:

**17:00etan**, Dantza emanaldiaren irekiera: Agurra, Makil Dantza eta Ikurriña Dantza.

**17:05ean**, Zubieta antzerki eta dantza taldeko ikuskizunak.

**18:00etan**, Helduen eta haurren plaza dantza saioa.

**19:30ean**, Afari-merienda eta ondoren Disko Festa.

Zubieta, 17:00etatik aurrera.

### DONOSTIA Hitzaldia

Joxe Mari Ostolaza, Josu Landa eta Malores Etxeberriak *Enpeinatzea ez bada libre* hitzaldia eskainiko dute. Argia aldizkariaren 100. urteurrena ospatzeko egin den hitzaldi sorta barruko ekintza.

San Telmo Museoa, 19:00etan.

### USURBIL Ikuskizuna

*H-Artetik, poesia musu zapietan* ikuskizuna eskainiko du Txakur Gorria kolektiboak eta eta Peru Galbete musikariak. Sorkuntza kolektibo baten bidez Joxan Artzeren ibilbide poetikoaz egindako irakurketa eta berrinterpretazio bat

da. Sarrerak, Lizardin 8 euro aldeaz aurretik; 10 euro egun berean. **Sutegi, 20:00etan.**

### HERNANI Festa

XXIII. Txalaparta Festa antolatu dute Hernaniko Musika Eskolak eta Ttan Ttakun elkarteak:

**19:30ean**, Joseba Zuaznabarren oroimenez bideo proiektzioa, Biteri kultur etxea.

Jarraian, Hernaniko Bihotx taldearen estreinaldia: *Norabide Guztiak*.

Hernani, 19:30etik aurrera.

### DONOSTIA Antzerkia

Vaiven produkzioak *Argiaren hautsa* antzezlan eskainiko du ostiralean eta larunbatean. Luis Elizetxearen lanean oinarritutako antzerkian, Miren Gojenola, Mikel Laskurain, Ander Iruretagoiena eta Ane Salvador dira protagonistak. Sarrerak, 9 eurotik 18 eurora. **Antzoki zaharra, 20:00etan.**

## LARUNBATA 25

### HERNANI Festa

XXIII. Txalaparta Festaren bigarren jardunaldia egingo da:

**12:00etan**, Txalaparta saio libreak, Tilose. Hernani Musika Eskola

Publikoko alboka, dultzaina, trikitiña eta txistu taldeak kale-bueltan.

**17:00etan**, Txalaparta Jaialdi Nagusia. Hernaniko Bertso Eskolako bertsolariak, Saustako Zuaznabazarrak, Erbetegi-Etxeberriko Goikoetxatarrak eta Joseba Zuaznabarren oroimenez bideo proiektzioa.

**Segidan**, Erreterria Musikal txalaparta taldea; Bizkaitik Ekaitza taldea; Arabatik Kolpez kolpe txalaparta taldea; Iruñako Taketan taldea; Lapurditik Txomin eta Ortz; eta Hernaniko Ttakun Ttakun eskolako txalaparta taldea.

**20:00etan**, Txalapoteoa, Ander Garcia Santestebanen eskutik.

**23:00etan**, Txalaparta Party Aparta, Hernaniko Gaztetxea. Poteo ondorengo pikoteoa eta festari amaiera emateko, M. Fraktal, DJ Barru eta gonbidatu berezi gehiago. **Hernani, egun osoa.**

### DONOSTIA Erakusketa

*Heriotza. Ante la muerte* erakusketara bisita gidatua. Bisita gidatu hau doakoa da erakusketarako sarrera eskuratuta. Bisita gidaturako txartelak bisita baino 30 minutu lehenagotik har daitezke museoko harreran. **San Telmo Museoa, 11:00etan.**

## ZINEMA

### HERNANI

17:15, 18:00, 19:15, 20:00, 20:45, 22:00.

### SANDIUSTERRI

#### Mount St. Elias

Osteguna: 18:30.

### USURBIL

#### URBIL

#### Aladdin

Ostirala: 16:30, 17:15, 18:00, 19:15, 20:00, 20:45, 22:00, 22:45, 23:30, 00:45.

Larunbata: 16:30, 17:15,

18:00, 19:15, 20:00, 20:45, 22:00, 22:45, 23:30, 00:45, Igandea: 16:30,

17:15, 18:00, 19:15, 20:00, 20:45, 22:00.

#### El hijo

Ostirala: 16:00, 18:10, 20:15, 22:45, 00:45. Larunbata: 16:00, 18:10, 20:15, 22:45, 00:45. Igandea: 16:00, 18:10, 20:15, 22:45.

#### Pokémon: Detective Pikachu

Ostirala: 16:00, 18:15, 20:30. Larunbata: 16:00, 16:35, 18:15, 19:15, 20:30. Igandea: 16:00, 16:35, 18:15, 19:15, 20:30.

### Hellboy

Ostirala: 21:35, 00:05. Larunbata: 21:35, 00:05. Igandea: 21:35.

#### Timadoras compulsivas

Ostirala: 20:35, 22:40, 00:45. Larunbata: 20:35, 22:40, 00:45. Igandea: 20:35, 22:40.

#### Casi imposible

Ostirala: 22:20, 00:50. Larunbata: 22:20, 00:50. Igandea: 22:20.

#### Vengadores: Endgame

Ostirala: 17:00,

18:00, 19:00. Larunbata: 17:00, 18:00, 19:00. Igandea: 17:00, 18:00, 19:00.

#### Lo dejo cuando quiera

Ostirala: 15:50, 16:40, 22:30, 00:50. Larunbata: 15:50, 22:30, 00:50. Igandea: 15:50, 22:45.

#### Mia y el león blanco

Ostirala: 15:55. Larunbata: 15:55.

#### Los hermanos Sisters

Igandea: 22:30.

### USURBIL Antzerkia

Muxurbil antzerki taldeko ikasleek ikasturte amaierako emanaldia eskainiko dute. Sarrera, doan eskuratu ahalko dira egunean bertan kultur etxean gonbidapenekin. **Sutegi, 12:00etan.**

### URNIETA Musika

Zero Sette Jai Banden emanaldia izango da. Pop, rock eta folk doinuak eskainiko dituzte. **Guria taberna, 19:30ean.**

## ASTELEHENA 27

### LASARTE-ORIA Jokoak

HH3 eta LH2 mailako hurrek eta haien guraso, aitona-amona edo senideek ederki gozatuko dute *Jolasen altxorra* ekimenarekin. Hurrek heldu baten laguntza izan behar dute. Ez da izenik eman behar. **Zabaleta auzoa, 17:30etik 18:30era.**

## ASTEARTEA 28

### LASARTE-ORIA Jaiak

Zabaletako Jaietarako motorrak berotzen hasteko haurrentzako eknitzak antolatu dituzte: eskulanak eta serigrafia. Kamiseta argia eraman behar da. Ostean, gas-gas

dantzatu eta japoniar bonbak izango dira.

**Zabaletako pilotalekuan, 18:00etatik aurrera.**

## ASTEAZKENA 29

### LASARTE-ORIA Jaiak

Zabaletako Jaietan Kukuka eskolako gaztetxoek antzerki lanak ikusteko aukera izango da. Ostean, jolas kooperatibotan parte hartzeko aukera izango dute eta azkenik, gas-gas eta japoniar bonbak daude. **Zabaletako pilotalekuan, 18:00etatik aurrera.**

## OSTEGUNA 30

### LASARTE-ORIA Musika

Biyak Bat elkarteko abesbatzak emanaldia eskainiko du. **Ama Brigitarren komentua, 18:00etan.**

### LASARTE-ORIA Jaiak

Haurrentzako opari zozketa, pintxo-potea eta gas-gas eta japoniar bonbak izango dira Zabaletako Jaietan. Honez, gain, 20:15ean, Intza Alkainen umorezko bakarriketaz gozatuko da. **Zabaletako pilotalekuan, 18:00etatik aurrera.**

# Zinemagintza, bilgune eta lanabes

Oriarte Institutuko ikasleek bigarren urtez parte hartu dute Tabakaleraren 'Zinema (h) abian' egitasmoan. Adierazpen bide gisa duen balioarekin batera, zinemaren alderdi pedagogikoa ere landu dute; elkarlanean aritu eta akordioetara iritsi behar izatea



Egitasmoan parte hartu dute Oriamendi Institutuko ikasleek egindako lanaren zati bat erakutsi zieten udal arduradunei. TXINTXARRI

## Txintxarri

Nork bere kabuz eginez hobe ikasten omen da. Taldean arituta, gainera, bestelako ikasbideak jaso eta trebetasun berriak lantzen dira. Tabakaleraren *Zinema (h)abian* proiektuak horiek guztiak egiteko abagunea eman nahi die DBHko ikasleei, zinema lantresna eta bilgune bilakaturata.

Oriarte Institutuak bigarrenaz parte hartu du egitasmoan. 4. mailako neska-mutikoek iaz ere lan bera egin zuen Mikel Gurra zinema zuzendaria izan dute irakasle eta bidaide. Ikasturte osoan filmak ikusi eta haietan irudikatutako mezuak nahiz esanahiak landu dituzte elkarrekin. Hala, zinema artea, sorkuntza eta kultura moduan ulertzeaz gain, norberaren bizipenak, ikuspuntuak edota barne mundua sortzeko eta azaltzeko bidea ere badela ulertarazi nahi diete gazteei.

Era berean, neska-mutikoak Zinemagintzan lehen pausoak ere eman dituzte. Ekipamendu profesionala baliatuta ikus-entzunezko bat sortu baitute. Ikasle bakoitzak hainbat

eginkizunen ardura hartu du: gidoilari, kamerari, soinu teknikari edo bestelako profesionalen azalean jarrita.

## Talde lanean sortu

Zeregin horietan hasi aurretik, ordea, beste prestaketa lan asko egin behar dituzte. Horren bidez, talde lanean aritu eta akordioa lortzen trebatu dira. Izan ere, ahalmen pedagogiko hori ere badu zinemak. Norberaren izaera eraikitzen laguntzeko baliabidea izateaz gain, gelakideen arteko harremanak sustatu eta ados jartzeak duen garrantziaz jabetzeko ere balio izan die.

Errodatutakoaren zati bat erakutsi zioten joan den astean Jesus Zaballos alkateari eta Maite Iglesias Kultur zinegotziari. Lan osoa, berriz, aste pare bat barru erakutsiko dute Bartzelonako Maria Espinalt Institutuan. Ekainaren 3tik 5era egitasmo honetan parte hartu duten hainbat tokitako ikasleak batuko dira. Besteak beste, Katalunia, Galizia, Madril, Berlin edota Txiletik joandakoak. Udalak 1.900 euro ingururekin finantzatu du bidaia.

## Zatoz kanpaina amaierako festara!

MAIATZAK 24, 19:00etan  
☀ Okendo plazan ☁ Trinketean

Zurekin  
**GIPUZKOA** ehbildu

HERRIA ALKATE

ehbildu

Zurekin  
**LASARTE-ORIA**  
gara